

GIPUZKOAKO ENPREA EHUNAREN LEHIAKORTASUNA INDARTZEA SUSTATZEKO PROGRAMA – JARRAIPENA

XEDEA: Enpresa jardueraren jarraipena eta sustraitzea sustatzea testuinguru egoki bat sortuz eta garatuz, enpresa transmisioa ahalbidetzeko tresnak eta esparruak sortuko dituen, eta enpresak transmititzeko formulak babestu eta euskarria emango diena.

ONURADUNAK:

- Gipuzkoan errotutako enpresak eta enpresa elkarteak
- EAEn kokatutako enpresa elkarteak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak
- Gipuzkoan kokatutako unibertsitate publiko eta pribatuaren zentroak, sailak, atalak, institutuak eta bestelako ikerketa unitateak.

PROIEKTU MOTAK:

Diru laguntza jaso ahal izango dute ikerketak, analisiak eta azterketak, proiektu esperimentalekin batera, honako proiektu hauek garatzeko:

- Informazioa sortzea eta lortzea, enpresa jarraipenaren eta transmisioaren esparruan erabakiak hobeto hartzea ahalbidetuko duena.
- Testuinguru egokiak sortzea, lurralde eragileak, eta eragile ekonomikoak eta sozialak barneratuko dituen.
- Prozesuak, sistematikak, tresnak eta laguntzak garatzea eta abian jartzea enpresen transmisiorako ingurune egokiak sortzeko.
- Gobernu korporatiboko egiturak eta prozesuak sortzea eta horiek trebatzea. Enpresa transmisioan parte hartzen duten pertsonentzako sentsibilizazio, trebakuntza eta ahaldundunaren dinamika.
- Esperientzia pilotu eraldatzaileak abian jartzea.
- Sentsibilizazioa, ikusaraztea eta gizarte baliaraztea, enpresa jardueraren jarraipenari eta transmisioari dagokionez.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diruz lagungarriak izango dira erakunde eskatzaileak aurkeztu duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zailtasunik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak 12.oinarrian)

Diru laguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira, salbu eta hainbat proiektu –ikerketak, analisiak eta azterketak, laguntza tresnak sortzea, kontzientziazioa eta sentsibilizazioa, dinamikak ezartzea...horietan % 100 izango baitira.

PROIEKTUAK HASTEKO ETA EXEKUTATZEKO EPEA:

Diruz lagundutako jarduerak diru-laguntza eskaera aurkeztu ondoren hasiko dira, urte naturalaren barruan, eta 2020ko maiatzaren 15erako bukatu behar dira.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPA ETA TOKIA:

Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskera inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako Departamentuaren web orrian, <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/dirulaguntzak>.

Eskaerak aurkezteko epea deialdia argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko da eta **2019ko apirilaren 30an**, eguerdiko 12:00etan bukatuko da.